

Berrigara



Berriz ere gertuan

Geure pilotariak Bergarako frontoian

Menu horia
RENAULT Txanda eskatu barik

EZ UTZI INORI ZURE DENBORAZ ERABAKITZEN. EZ ETA ZURE DIRUAZ ERE.

MECA BERGARA

Olio	3.995 <small>pezetatik aurrera</small>	24,01 €
aldaketa		

Doan, 25 punturen begizko azterketa operazio bakoitzeko
RENAULT ZERBITZUAK. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.



Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68



Sarean

Masterreka 13, behea. BERGARA.

943 76 91 08

Bergarako Internet gunea



**Enpresetarako
Internet bidezko
soluzioak**

- Web orrien programaketa
- Mantenimendua
- Ikastaroak

Trimo



ZABALDU BERRIA!

Inalanbrikoa
Poltsikokoa
Telefonia fijoak
Osagarriak
Faxak

Deba ibaia

Zurradero 4

943 76 59 52

Zurradero

Herrilaunak

Ibargarai hiribidea

Seminarioa / M. Altuna

Telefonica
MoviStar

banatzaile
ofiziala





Traba arkitektonikoak

Marta Moral / Kazetaria

Herritarren bizitza erosoagoa eta hobeia izan dadin ahale-gintzea da, neurri batean, udal korporazioaren bete-behar bat. Korporazioak herritarrei zor die euren zergekin osatzen diren dirupartidak disfrutatzeko behar diren erosotasunak sortzea.

Minusbaliatu eta ezinduek ere legeak agindutako eran ordaintzen dituzte euren zergak eta, beraz, txotxolokeria bat badirudi ere, badituzte eskubideak ere. Bergara asko aldatzen ari da azken urteotan. Hil honen hasieran kaleetan zehar egin nuen azken pasioan ikusi nuen, esate baterako, inor ez dela arduratu espaloietako koska txikitzeaz, ezinduek errazago mugitu daitezten.

Traba arkitektonikoen gaia aspaldiko gaia da, baina, hala ere, punta-puntakoa da. Hobe bai, notizia izateari laga izan balio! Bada lege bat, Udal denek ezagutu beharrekoa, 1997ko abendua-

ren 4koa; eta lege honen ondorioz erakuntza berri guztiek ezinduendako egokituak izateko obligazioa dute; hau da: espaloia janda, aldapak, eta abar. Eta, jakina, legearen berri ez izan arren, legea bete beharrekoa da.

“Espaloiei bazterrak txikitzeko aurrekontua ez litzateke handia izango, eta hala balitz ere, egin beharko litzateke. Agintariek hanka bat apurtu beharra al dute zein oker jokatzan ari diren ikusteko?”

Udalak eraikitzailea “zaintzen” du; baina zeinek zaintzen ditu Udalaren obra publikoak? Kasu honetan, Udalaren akatsaz gain Eusko Jaurlaritzarena ere bada, ez dituelako legeak aurreikusten dituen zigorrak jartzen, eta legea betearazteaz arduratuko den ikuskatzailerik ere ez duelako.

Arartekoak Gipuzkoako minusbaliatuen federazioarekin dihardu lanean; baina, niri behintzat, ez zait serioa iruditzen. Ez zait serioa iruditzen bere jardunekin “eredu” izan beharko lukeen arauak ez betetzea.

Espaloiei bazterrak txikitzeko aurrekontua ez litzateke handia izango, eta hala balitz ere, egin beharko litzateke. Agintariek hanka bat apurtu beharra al dute zein oker jokatzan ari diren ikusteko?

Eta, bide batez, kontuz herritarrekin ere; edozein tokitan aparkatzen baitute, minusbaliatuen pasabideak itxiz.<

barruan



M.K. Gallastegi

EHUko errektore-gaia

“Errektore izatekotan gauza asko aldatuko nituzke Euskal Herriko Unibertsitatean”

8.



Ander Agirre

Ulma-Cegasako txirindularia

“Karrerak bukatzen eta afizionatuen erritmora egokitzen saiatuko naiz aurten”

23.



Eider Aranzabal

Jarduneko begiralea

“Jentiaikin kontaktuan egotia gustatzen jat. Ordenadore aurrian ez neuke lan egingo”

29.

Farmaziak

Eguakitza 11:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 12:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 15:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 16:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 17:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 13: Mizpildi.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 4

3-10-11-22-26-28 (osag.13/itz.8)

Astelehena 7

8-11-13-44-45-49 (osag.39/itz.9)

Martitzena 8

5-11-20-24-45-47 (osag.30/itz.2)

Eguaztena 9

8-12-22-27-39-43 (osag.29/itz.9)

PRIMITIVA

Zapatua 5

14-15-18-19-45-49 (osag.10/itz.5)

Domeka 6 Saritzarra

3-4-7-28-45-47 (osag.10/itz.3)

ONCE

Eguakitza 4: 92.004 (028 seriea)

Domeka 6: 92.010 (010 seriea)

Astelehena 7: 26.974

Martitzena 8: 40.466

Eguaztena 9: 81.709

hau be badou?!

Parisko arbolak

Parisko arbolak txip elektroniko batekin babestuko ditu bertako Udalak aurrerantzean. Txipa arbolaren enborrean txertatuko dute eta inausketa egiteko unerik egokiena zein den jakiten lagunduko du, eta baita arbola gaisotasunen batek jota dagoen ere.

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 12

Goiz partean behelainoa nagusituko bada ere, egunak aurrera egin ahala urdinguneak zabalduko dira. Goizaldean izotza egin dezake.



Domeka 13

Zapatukoaren antzerako eguraldia izango dugu domekan ere eta eguneko zatirik handienean ostarate zabalak irekiiko dira zeruan.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: otsailak 12



Ilbete: otsailak 19




Ilbehera: otsailak 27




Ilberri: martxoak 6

Eguzkia

Domeka, otsailak 13



Sortu: 08:14



Gorde: 18:49

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 3	14	5	-	16	7	-
Eguakitza 4	16,5	5	-	17	1	-
Zapatua 5	16	9	-	20	2	-
Domeka 6	13	9	2,7	16	-1	1,6
Astelehena 7	9,5	7,5	-	15	5	0,3
Martitzena 8	12,5	8,5	9,8	17	7	6,7
Eguaztena 9	9	4,5	-	16	8	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ordotz / Aardi

Txerri arra.
/ Txerri emea.

- Igel jartzen zien, da orregaitik kapau itte zan, naiz aardixa ta naiz ordotza, bixak.



Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritzia	943 76 10 73

zorion agurrak



Kandi Larrañaga
Otsailaren 13an
urtebetetzea. Urte
askotarako amama!
Etxekoak.



Idurre Retolaza
Otsailaren 16an
11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Maria Josefa Ormazabal
13an 57 urte. Urte
askotarako! Familia-
koak eta Nerea.



Aimar Errasti
Otsailaren 11n
14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ismene Fernandez
Otsailaren 13an
urtebete. Urte asko-
tarako! Gurasoak,
ahizpa eta etxekoak.



Andoni Rodriguez
Otsailaren 15ean
19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñaki Legazpia
Otsailaren 16an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ana Agiriano
Otsailaren 15ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitzol Lenisoro
Otsailaren 15ean
6 urte. Urte askota-
rako! Amama eta
etxekoak



Miriam Martinez
Otsailaren 16an
13 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak
eta lagunak.



Leire Larrea
Otsailaren 13an
19 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta Gurutz.



Jaber Zabaleta
Otsailaren 17an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Elena Egino
Otsailaren 17an
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nora Casquero
Otsailaren 15ean
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Orbeago
Otsailaren 15ean
7 urte. Urte askota-
rako gure mimosito!
Etxekoak.

*Hurrengo
alean,
OTSAILAREN
18a eta 24a
bitartekoen
zorion agurrak
argitaratuko-
ditugu.*

hildakoak

BERGARA
Maritxu Unamuno Goñi
Otsailak 3, 78 urte
Maria Larrañaga Amiano
Otsailak 8, 93 urte

jaiotakoak

BERGARA
Mireia Arietaleanizbeaskoa Toledo
Urtarrilak 31
Julen Bilbao Juaristi
Urtarrilak 31
ANTZUOLA
Amaia Gaztañaga Fernandez
Urtarrilak 24
Jone Jauregi Anduaga
Urtarrilak 30




Aritz Diarzabal
Otsailaren 13an
2 urte.
Urte askotarako!
Nora.



Biat Rezusta
Otsailaren 13an
7 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak;
batez ere, Aritz.



J. Antonio Martinez
12an urteak. Urte
askotarako! Etxekoak,
Eneko eta Ainhoa.



Saray Plazas
Otsailaren 13an
4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Yaiza.

URTEURRENA

Narziso Larrañaga Telleria

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 13,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Julia Arrazola Galdos

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 13,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Maritxu Unamuno Goñi

Bergaran hil zen
2000ko otsailaren 3an,
78 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Hipolita Gallastegi Narbaiza

Bergaran hil zen
2000ko urtarrilaren 22an,
92 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► Elorrioko flamenko jardunaldiekin jarraituz, **"Agüita"**, gaur, eguakitzan, 22:30etan Arriola aretoan.

► **"Dama eta Kardinala"** antzezlan Txalo taldearen eskutik domekan, hilak 13, 19:30etan Arrasateko Amaia antzokian.

MUSIKA

► **PiLT** taldea, gaur, eguakitzan, 22:00etan Go-Jam aretoan. Bihar, zapatua, **Ocean Colour Scene**, 21:30etan.

► **Fanniplatz** tangoa gaur, eguakitzan, gauerdian Elorrioko Ateneoan.

ERAKUSKETA

► **Komite Internazionalistak** taldearen erakusketa Nahikarin.

► **Benito Cantero**ren argazkiak Donostiako Caravanseria kafetegian (San Bartolome, 1).

LEHIAKETAK

► **Justo Garate Arriola beka.** 1999ko deialdia historiari gaiei zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz burutuko da eta bekaren diru zenbatekoa 1.000.000 pezetakoa izango da. Bekaren iraupena

11 hilabetekoa izango da. Beka jaso ahal izateko 35 urte bitarteko diplomatua edo maila bereko tituloduna izatea beharrezkoa da. Eske idazkiak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea martitzenera arte zabalik izango da. Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

► **Gazte Informazio Gunea** iragartzeko kartel lehiaketa, Bergaran ikasi, bizi edo lanean ari diren 15 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatuko da. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibideak: 943 77 91 57.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa.** Ikerlanaren gaia Goierri dago-kion edozein zientzi alorreko izan daiteke eta lanak (euskaraz) jasotzeko epea martxoaren 17an bukatuko da. Irabazleak 500.000 PTA eta bigarrenak 300.000 eskuratuko dituzte. Argibideak 943 16 02 82.

ANTZERKIA

EuskalOFF 2050

Non: Novedades aretoan

Noiz: gaur, eguakitzan, 22:30etan

Sarrera: 1.000 PTA. 750 PTA langabetuendako eta 26 urtetik beherakoendako

Hika antzerki taldeak "EuskalOFF 2050" bere azken lana aurkeztuko du gaur gauean Novedadesen. Aipatutako lana joan zen abenduaren 3an estreinatu zen Azpeitian, XVII. Euskal Antzerki Topaketan barruan. Hikak talde profesional onenaren saria jaso zuen orduan. Tituloak adierazten duen moduan, antzezlan 2050. urtean girotuta dago. Estatu Batuetatik Europara oportetara datorren bikote bat, Euskal Herria eta euskara bera izan zenaren azken aztarna ezagutzeko asmoz, "Basque Museoa" bisitatzerako joango dira. Hori da, hain zuzen ere, antzezanaren abiapuntua. Hika taldekoek antzezan poetiko-komikoa egin dute oraingo honetan, dantza, poesia eta umorea uztartuz. Herri baten inguruko fikzioa eta errealitatea nahastu egiten dira, orain modu majikoan, orain modu absurdoan eta Hika taldekoen arabera, "ikuskizun hau unibertsala da, edozein kultur gutxituri egokitzeko modukoa".

Agurtzane Intxaurrega Hika taldeko partaideak idatzitako lana da eta Makare-



Argazkian, Hika taldeko antzezleak.

na Pomboren zuzendaritzapean, Anjel Alkain, Loli Astoreka, Belen Cruz, Miren Gojenola eta Josu Mujika ditugu aktore lanean. Mikel Laskurain aktore bergararrak produkzio lanak egin ditu oraingoan. Bere hitzetan, "euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea da antzezanaren helburua eta hori transmititu nahi zaio publikoari". Bestalde, esan behar da Manu Muniategiandikoetxea margolari bergararra arduratu dela diseinu grafikoaz.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldea. Helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroak zapatu goizetan. Argibideak: 943 76 15 40.

DEIAK

► **EAJ.** Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenentzat Batzokian bulegoa zabalik izango da astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 943 76 47 00.

► **Jardun Elkartean** ez ohiko batzar orokorra eguenean, hilak 17, 19:00etan Kartzela Zaharrean.

► **Jose Mari Etxanizen** aldeko ekitaldiak: gaur, eguakitzan, Ene Bada musika taldea 23:00etan Pol-Polen; bihar, zapatua, futbito solidarioa 19:00etan San Martin Plazan eta eguenean, hilak 17, zineklubeko emanaldia 20:00etan Novedadesen.

► **Hitzaldia:** "Goi mailako zikloak Miguel Altuna institutuak" datorren eguenean, hilak 17, 18:30etan Ipintza institutu-ko aretoan.

► **Aurrejubilatuta eta alarguenen** eskubideen aldeko manifestazioa eguenean, hilak 17, 11:00etan Bilbon. Bergararik autobusa aterako da 9etan. 943 76 27 12 (Regino Valle).

OHARRAK

► **Udaleko Ingurugiro Batzordeak** deialdia egiten du San Martzial egunerako jarri eta kendu gabe dauden mahaiak erretiratzeko. Otsailaren 15era arteko epea iragan ondoren, Udalak dauden mahaiak kendu egingo ditu.

► **Debaguneko egutegiak** 400 pezetan salgai Jardun elkartean eta BERRIGARAN.

► **Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko ikasketxeak** (HHI-EPA) irakaskuntza ofiziala eta doanekoa eskaintzen du, euskaraz zein gaztele-raz. Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna hobetu, ahaztutako ezaguerak eguneratzeko, ikastaro interesgarriak egin edota Eskola Ziurtagiria eta Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko interesa dutenek argibide gehiago jaso ditzakete Irizar jauregian, Barrenkale 33an, edo 943 76 44 52 zenbakian.

► **Euskal presoak Euskal Herrira** taldeak dei egiten die taldean parte hartzeko interesatuei, martitzenero 20:00etan Kultur Etxean egiten den bile-eran agertzeko.

KINTADAK

► **1975ean** jaiotako bazkaria Zabala jatetxean martxoaren 11n. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kutxan otsailaren 29ra arte zabalik.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Deep blue sea
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30..
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

La canción de Carla
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema
Todo sobre mi madre
Eguakitzan: 22:00.

El coleccionista de huesos

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 21:30.

Hoy empieza todo
Eguena: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia
Happiness
Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga
Las cenizas de Angela
Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
Juana de Arco
Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

Los teleñecos en el espacio

Zapatua eta domeka: 17:00.

ELORRIO. Arriola
Bowfinger, el picaro
Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Gigante de hierro
Domeka: 17:00.

Finales de agosto, principios de septiembre
Eguena, zine-kluba: 20:00.

DEEP BLUE SEA

Zuzendaria: Renny Harlin.

Aktoreak: Thomas Jane, Saffron Burrows, Samuel L. Jackson.

≥ 13 URTE

Susan McAlester (Saffron Burrows) doktoreak tiburoiekin ikerketa lanak egiten ditu. Bere metodoak zalantzan jarri izan dituzte eta Aquatica laborategiko lankideen artean giroa ez da onena. Tiburoiekin izango dute azken hitza, zientzilarien beraien bizitza arriskuan jarritz.

LA CANCIÓN DE CARLA

Zuzendaria: Ken Loach.

Aktoreak: Robert Carlyle, Oyanka Cabezas, Scott Gleen.

≥ 18 URTE

Ken Loach zuzendari britaniarrak (*Riff raff, Agenda oculta*) zine soziala deritzona jorratu izan du bere karreraren. Oraingo honetan fondo politikoa duen amodiozko istorio bat aurkezten digu. Glasgow hirian autobus txofer lanak egiten dituen gizon baten eta errefuxiatu nikaraguar baten arteko istorioa kontatzen da.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

MUJIKA Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean

BERGARA
943 76 28 92



Larkano


KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

Mari Karmen Gallastegi EHUko irakaslea da gaur egun Sarrikon. Bizkaiako kanpuseko errektoreordea eta Gasteizko Gobernuan Ekonomia eta Ogasun sailburua izan ondoren, EHUko errektore izateko hautagaietako bat dugu Mari Karmen Gallastegi bergararra.

MARI KARMEN GALLASTEGI
EHUko irakaslea eta errektore-gaia

“Errektore izatekotan gauza asko aldatuko nituzke EHUⁿ”



Gallastegi EHUko lehenengo emakume errektorea izan daiteke.

G. Nolatan animatu zinen aurkeztera?

E. Gestio lanetan ez diharduen irakasle askok pentsatzen dute EHUⁿ zeregin ugari dagoela, Unibertsitatea ez dela konformatu behar gaur egun denarekin eta balore akademiko eta unibertsitarioak askoz gehiago nabarmendu behar ditugula. Hori guztia ikustek animatu nau nire hautagaitza aurkeztera, eta horretaz aparte, pentsatu nuen, emakume irakasle asko baldin badago Unibertsitatean, zergatik ez izan emakume bat errektore?

G. Emakume izateak suposatzen al du oztoporik?

E. Nik uste dut EHUⁿ emakumea izatea ez dela oztopo. Beste toki eta arlo batzuetan matxismo handia dagoen arren, Unibertsitatean ez dago. Gainera, suposatzen dut EHUko errektorea emakume bat izateko ordua badela pentsatzen duten emakumeak egongo direla. Beraz, uste dut oztopo baino gehiago abantaila izango dela.

G. Nola ikusten duzu Euskal Herriko Unibertsitatea gaur egun?

E. Giza errekurtso paregabeekin, baina bere aurrean erronka askorekin: teknologia berriak ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditu, irakaskuntza teknika berrien beharra dauka, 3. ziklo konpetitibo bat garatzeko beharra e.a.

G. Ze aldaketa egingo zenituzke edo ikusten dituzu beharrezkoak?

E. Gauza asko aldatuko nituzke. Besteak beste, ikasketak planak berraztertuko nituzke, jestioak arintzen saiatuko nintzateke; lurraldetasunaren artikulazioa ere oso ondo aztertu eta pentsatu beharreko gaia dela iruditzen zait; hizkuntz nor-

“Iruditzen zait esfortzu handia egin beharra dagoela euskarak gaztelerak adinako indarra izan dezan Unibertsitatean”

malizazioaren bidea ere jorratu beharra dago, eta Arartekoaren figura Unibertsitatean sartzea nahi nuke, unibertsitario guztien arazo eta kexei irtenbidea emango liekena.

G. Hautatua izatekotan, besteak beste, euskal adarrraren arazoa eta irakasle kaleratuena izango dituzu eskuartean. Ze irtenbide ikusten diezu?

E. Euskararen arazoari dagokionean, iruditzen zait esfortzu handia egin beharra dagoela euskarak gaztelerak adinako indarra izan dezan. Gizarte elebidun batean bizi gara, eta EHU^k ere elebiduna izan behar du. Dena dela, denborarekin eta dirua inbertituz arazo hori konpondu daitekeela uste dut. Irakasle kaleratuen auziari dagokionean, berriz, nik uste dut hasi dela konpontzen arazo hori. Irakasle hauek ezin dute beraien betiko jarrerarekin jarraitu, aldatu beharra daukate. Irtenbidea hitz egitea eta negoziatzea da, ea horrela arazo honekin bukatzen dugun, Unibertsitateak ahalegin guztiak egingo ditu.

G. Ez al dizu beldur pixka bat ematen horrelako kargu batek?

E. Errespetua bai, baina beldurrik ez. Lehen ere izan ditut ardura handiko karguak, Gasteizko Gobernuan Ekonomia sailburu izan nintzenezan esate baterako, eta gogoz lan eginez gero eta ekipo on baten laguntzaz, errespetua bai, baina beldurrik ez zaio izan behar horrelako kargu bati.

G. Ze esperantza dituzu?

E. Hiru hautagai aurkeztu gara, eta ez da erraza izango, baina nik uste dut besteek adinako aukerak ditudala, eta irabazteko borrokatuko dut, era garbian, baina borrokatuko dut, ia zer gertatzen den.<

Zapatuko azokak emango dio hasiera aurtengo Zuhaitz Asteari

Hainbat mintegitako arbolak eta landareak ikusgai eta erosgai

Bihartik, hilak 12, datarren otsailaren 19ra bitartean Zuhaitz Astea izango dugu Bergaran. Azken zortzi urteetan Zuhaitz Eguna antolatu bada ere, Udalak Zuhaitz Astearen figura berreskuratu nahi izan du aurten eta, beraz, datozen zazpi egunetarako hainbat ekitaldi antolatu dira.

Esan bezala, bihar, zapatua, zuhaitz landareen lehen azoka berezia egingo da San Martin plazan goizeko 9etatik aurrera. Baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta, eta zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa jarriko da bertan. Era berean, zuhaitzak ikusi ahal izango dira eta Plazara hurbitzen direnek erosteko aukera ere izango dute. Zuhaitz desberdinen enborekin egindako erakusketa ere egingo da Oñatiko basozaina den Imanol Artolarekin eskutik eta, gainera, herbario bat (zuhaitz ostoekin egindako bilduma) eta Foru Aldundiko Arizmendi mintegitik ekarritako landare esanguratsuenak jarriko dira San Martin plazan izango diren postuetan. Herbarioa Jesus Lopez tolosarrak utzitakoa da. Guztira, 30 espezie inguru jarriko dira.

Besteak beste, honako hauek izango dira biharko azokan parte hartuko dutenak: Oñatiko Madina mintegia, Zaldibarko Areitio mintegia, Zegamako Arakama Viveros, Zamudioko Maga-



Hurrengo zapatuan, bihar zortzi, egingo da zuhaitz landaketa San Martzial inguruan.

ARTXIBOA

larte mintegia eta Zaldibarko Belar. Juan Billar elgetarrak eta Jon Zabaleta legazpiarrak ere parte hartuko dute. Bergarako partaide-tzari dagokionez, Altuna eta Brunet komertzioek baso lanerako tresneria erakutsiko dute biharko azokan.

Aitor Aranzabal Ingurugiro Batzordeburuaren hitzetan, "zuhaitzei garrantzi gutxi ematen zaiela ikusten genuen eta horregatik aurten, gutxienez, astebete eskaini nahi izan diogu gai honi, era askotako ekitaldiak antolatuz".

IKASLEEN PARTEHARTZEA

Bestalde, Zuhaitz Astearen barruan, ikastetxe ezberdinei zuzendutako ekitaldiak ere izango dira. Ingurugiro heziketan diharduen Kaska-

beltz enpresak hitzaldiak emango dizkie LHko 6. mailan eta DBHko lehen zikloan ari diren ikasleei. Bestalde, Mendia Bizirik talde ekologistarekin batera, bertako landareen aldeko kanpainatxo aurrera eramango da. Horrela, zuhaitz bat eskuratu eta landatzeko aukera emango zaie ikasle guztiei. Ingurunean zuhaitzek duten garrantzia jasoko duen liburuxka bat aterako da, bertako espezie garrantzitsuenak eta landaretzaren zerikusia duten beste hainbat gai jorratuko direlarik.

LANDAKETA HILAREN 19AN

Ohitarari jarraituz, datoren zapatuan, otsailak 19, herri-tarrei zuzendutako landaketa egingo da. San Martzialen

100 gaztainondo landatuko dira aurten. Irteera goizeko 10etan egingo da Oxirondoko azokaren parean eta ibilaldi gidatu bat egiteko asmoa ere badago. Ingurugiro Batzordeak ibilbide botanikoak ere antolatuko ditu Zuhaitz Astearen programazioaren barruan, herriko parkeetan dauden zuhaitzak identifikazio plaken bitartez seinatzeko. Aipatutako lana Arrizuriaga, Errotalde, Usondo eta Errekaldoko parkeetan egingo da.

Lan hau egin ahal izateko, Murgiako Nekazaritza Eskolan ikasten diharduten bi bergarar ikasketa-praktiketan izango dira hiru hila-batez. Zuhaitz Astearen plangintzaren barruan, lan honekin martxoan hasteko asmoa dago.



Argazkian, berpizkunde garaikoa den Santa Anako ermita.

ARTXIBOA

Santa Anako parkea eta ermita txukuntzeko asmoa du Udalak

Lehen fasean ermitako estalkia konponduko da

Bergarako Udalak Santa Anako parkea txukuntzeko lanei ekingo die aurtan. Parkea txukundu eta ordenatzeko proiektuan hiru fase bereizten dira. Lehenbizikoan Santa Ana ermitako estalkia konpontzeko asmoa dago. Udalak dagoeneko aipatutako lanak adjudikatzeko lehiaketa deitu du eta aurrekontua bederatzi milioi pezeta ingurukoa izango da. Diputazioak lau milioi pezetako dirulaguntza emango du lanak egin ahal izateko. Era berean, lehen fase horretan, ermita barrutik berrizteko asmoa dago. Santa Anako ermita berpizkunde garaikoa da eta azken urteotan nahiko egoera txarrean dago.

Bestalde, bigarren fasean parkearen ordenazioa

egin litzateke, parkea txukundu eta egokitzapena egiteko. Udala Iñaki Berasategi bergarar arkitektoa eta Iñigo Segurola arkitekto paisajistarekin harremanetan jarri da dagoeneko egin beharreko lanak zehazteko eta aurtengo aurrekontuetan diru partida bat bideratuko da Santa Ana parkeari itxura berria emateko. Udal aurrekontuak onartu bitartean, ezin izango da jakin Santa Anako parkearen berriztapen lanetan aurtan zenbat inbertituko den. Udalaren asmoa, hirugarren fase batean, Kultur Etxearen ondoan dagoen eraikuntza, Errota (gaur egun erabat hondatuta dagoena), jaso eta berriztea da. Hasiera batean, lanak bukatu eta gero, Jardun elkarteari lagako li-

tzaiok eufizio hori. Bestalde, ermitaren ondoan dagoen "jardineraren etxea" deritzona botatzeko erabakia hartu du Udalak, etxe hori oso egoera txarrean baitago.

Udaleko iturrien arabera, ermitaren estalkia konpontzeko lanak laister hasiko dira eta proiektuaren hurrengo faseak ere aurtan martxan jartzeko asmoa dago. Lan guztiak 2001 urtean amaituta egotea espero da. Dena den, oraindik ez da proiektu definitiborik egin eta beraz ezin da proiekturik ez aurrekonturik aurreratu. Hala ere, parkea egokitzeko bakarrik 25 milioi pezeta inguru inbertituko direla aurreikusten da egingako lehen azterketen arabera.

"Euskal Demokrazia" aurkeztu zuen EHk

Euskal Herritarrok alderdiak "Euskal demokrazia" proposamena aurkeztu zuen eguaztenean Miguel Altuna institutuan. Aipatutako proposamenaren helburu nagusia "Euskal Herrian demokrazia eskuratzea eta gatazka politikoa gainditzea" lirateke, "euskal gizarteari protagonismoa" emanez. Bertan, Euskal Herria nazio bat dela eta beste edozein nazio politikoren mailan dagoela jasotzen da. EHk landutako proposamenean esaten denez, "euskal herritarrok ez dugu aukerarik izan gure erabakia lurraldetasun osoan adierazteko eta herri honen hitza ez da kontuan izan, Euskal Herriari bere hitza ukatu izan zaiolako".

Beraz, marko juridiko politiko berria osatzea, nazio mailako mugimendu anitza eta zabalak artikulatzea eta, besteak beste, Lituaniar, Estoniar edo Eskoziar gertatu den bezala, estatutik gabeko nazioen ernaltzea proposatzen da. Benetako herrien Europa sortu nahi bada, Euskal Herriak hitza izan behar duela diote EHkoek. Lurraldetasunaren arazoa konpontzeko, Euskal Batzar Eratzailea osatzeko hauteskundeak egitea proposatzen dute, "hauteskunde horietan Euskal Herrian bizi edo lan egiten duten guztiak parte hartu ahal izango dutelarik". Batzar Eratzaileak Euskal Herriaren ordezkaritza ofiziala osatuko luke.

Txandakako enpresa ingeniari-tza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua
Lan kontratua lehen egunetik**

Bilera informatiboa

- Datorren otsailaren 16an, asteazkena, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 17:30etan Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 18:00etan bilera informatiboa hasiko da.

Prestakuntza ikastaroa

- Makina Erremintaren Institutuak ingeniari-tza-probetarako prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaroa, martxoaren 11tik maiatzaren 27ra izango da, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

1999/2000 ikasturtea

■ **Makina Erremintaren Institutua**

San Roke auzoa 1
20870 Elgoibar

■ **Tf. 943 74 41 32**

Faxa: 943 74 41 53

E-posta: ingenieria@fmh.es

■ **Ordutegia:**

8:00etatik 13:00etara

eta 14:30etatik 17:30etara



**MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA**



**cesi aquitaine
poitou-charentes**

Zuhaitz landareen lehenengo azoka



**San Martin plazan
Zapatuan,
otsailak 12
Goizeko 9:00etatik
aurrera**



**BERGARAKO UDALA
INGURUGIRO BATZORDEA**

**Baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta
Zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa**

Berrigara

397 zenbakia.
2000ko otsailaren 11.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Tere Madinabeitia,
Aintzane Irizar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:
Esteban Plazaola, Alex Labaien,
Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberezarbar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Antxon Agirre Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

GURE AMETSA ELKARTEA EREDU

Azkenaldian Berrigaran eta beste komunikabide batzuetan irakurri ditut San Antonioko Gure Ametsa elkarteantolatzen ari diren jarduerak txalotzeko gutuna idazteko astia hartu dut.

Oso ideia interesgarriak iruditzen zaizkit, eta oso baloratzen ari diren jarduerak txalotzeko gutuna idazteko astia hartu dut.

Oso ideia interesgarriak iruditzen zaizkit, eta oso baloratzen ari diren jarduerak txalotzeko gutuna idazteko astia hartu dut.

Oso ideia interesgarriak iruditzen zaizkit, eta oso baloratzen ari diren jarduerak txalotzeko gutuna idazteko astia hartu dut.

ohitura dago elkarte gehienetan.

Txalotzeakoa da, bereziki, errelleno eta tostoieiburuzko kofradia sortzeko egiten ari diren ahaleginak, kanpoan hain ezagun diren bertako produktuak bultzatzeko era egokia iruditzen zait eta. Espero dut proiektua gauzatu dadila eta beste toki batzuetan bezala, Bergaran ere kofradia bat edukitzea. Segi horrela.


Esteban Larrañaga

GIDA 2000

Gogorarazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, daukazuela jasotzeko moduan. Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARARA: 943 76 03 97.



tira biraka usoa mendikute



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Zer pentsatzen jatzu Almerian, El Ejido herrian, azkenengo egunotan etorkiñekin gertatutakua?



Amaia Alegre

Jentiaren erreakziñua onartezina da. Uste dabe lana kenduko doskuela, baiña guk egin nahi ez ditugun lanak egitten dittue.



Raimundo Bollar

Oso gaizki. Lanera etorri eta bizi ein bihar dabe. Ni be Iparramerikan artzain ibilita nago eta horrelako jarrerak ezin die onartu.



Nati Epelde

Ez dakit zer esan; ez nago gehixegi enterauta, baiña penia da horrelako gauzak gertatzia. Askotan pentsau barik eitten die gauzak.



Valentin Santos

Nik ez dakit errua zeñnek euki daben, baiña jentiaren erreakziñua oso biolentua izan da. Gauzak argittu ein biharko die.



Maialen Orbegozo

Oso gaizki; ikusitta gaur egun etorkiñak hainbeste diela toki askotan (gure artian be bai), jentia horrela ipintzia ez dot ulertzen.



Angel Perez

Horrek ez dauka fundamenterik, danok pertsonak gara eta guztiok daukagu nahi dogun lekuan bizi eta lan eitteko eskubidia.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

BEHEKO ESTAZIOKO PASOA ETA ARGIAK

San Joxepe elkartera hurbildu eta bertan zegoen emakume baten kexa jaso genuen eguakitzean. Aipatutako emakumea Labegarrietan bizi da eta haserre dago Udalarekin. Alde bateatik, Beheko Estazioaren eraikuntza bota zutenetik eskonbroak ez dituztela erretiratu salatu nahi du. Era berean, Labegarrietatik datozenei estazioaren inguruan zegoen pasabidea itxi egin dietela esan zigun. Bestalde, Zubiaurre eta Estazioaren artean argien beharra dagoela ikusten du. Bien bitartean dagoen tunela ondo dagoela, baina tuneletik Zubiaurrera argirik ez egotea ez zaio bidezkoa iruditzen. Udaletxean behin baino gehiagotan kexatu izan direla baina ez dietela kasurik egin esan zigun.



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

Mujika
gerologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Eska ezazu aurrez, labean egindako bildotsik gozoena!



**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

adituen esanetan

Atzerritartasun legea

A tzerritarren eskubide eta askatasunak Espainian eta bere gizarte integrazioari buruzko urtarriaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, otsailaren hasieran sartu zen indarrean. Gauza bi argitzera noa metodologiaz: lekuak laburpen eta eskematizazioz bideratzen nau. Lege hori atzerritarrentzat dago egina (ez "komunitario" delakoentzat). Atzerritar batek Espainian (legearen terminologian ez da Estatu espainola erabiltzen) sartu ahal izateko, orokorrean, lehengo sistema

mantentzen da: horretarako dauden sarlekuetatik sartu, pasaporte eta nortasuna agertzen duen agiria eman, Espainian pasa behar duen aldirako bizibiderik baduela frogatu eta erdarazko "visado" deritzona azaldu, irten aurretik kontsulatu bitartez eskuratutakoa. Sartu eta gero, 3 egone eman daitezke: egonaldia, aldibaterako egonaldia eta egonaldi iraunkorra.

Egonaldia gehienez 90 egunekoa izan behar da, baina beste 90 luzatu daiteke prorrogaz eskatuz. Aldibaterako egonaldiak 90 egun eta 5 urte bitartekoa behar du izan. Baldintza batzuk bete behar dira, hala nola, bizibidea norberarentzat eta familiarentzat, edota baimendutako norbere negoziazioa, lan-kontratua edo familia biltzeko eskubideduna (*reagrupacion familiar*) izatea.




AINHOA ALTUNA

Abokatu

"Orain arte irregular modura Espainian dauden atzerritarrek, erregular izateko aukera dute uztailaren 31 baino lehen eskatuz gero"

Familia biltzeko eskubide horri buruz, berrikuntza handia azaltzen da legean: arrazoi horregatik 'egote eskubidea' eskuratu duen atzerritarrek, nahiz eta ezkontideaz banandu, ez du 'egote eskubidea' galtzen. Bestalde, orain arte irregular modura Espainian dauden atzerritarrek, erregular izateko aukera dute uztailaren 31 baino lehen eskatuz gero. Bi urtez Espainian bizi direla eta bizibidea badutela frogatuz, "automatikoki" 5 urteko egote eskubidea lortuko dute. Eta berdin, 1999ko ekainak 1

baino lehen Espainian sartu eta azken 3 urteotan noizbait 'egote' edota 'lan baimena' eskatu dutenentzat ere (80.000 atzerritar inguru). Gobernuak erregularizazio-epea zabaldu aurretik, informazio kanpaina egingo ei du.<



Atzerritartasun legea otsailetik dago indarrean. ARTXIBOA

bergarako errota



AMUSKIBAR ERROTA

Antxon Agirre Sorondo

Zuan Bautista Lazpiur Lizaur, 39 urte, nekazaria (badaki irakurtzen eta idazten), Amuskibar baserrian helbideratua ageri da 1890eko zentsu ofizialean.

19012 Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO), Esteban Irizarrek argindarra lortzeko urak aprobetxatzeko egindako eskaera dela eta, hauxe ageri da:

"Helburu horrekin lehen Amusquibar izenarekin ezagutzen zen errota (gaur egun baserri bihurtua) aspaldiko urtegitxo berregin nahi da".

Amuskibar baserri-errotak 1922an aipatzen da eta Amuzquibar moduan 1927an.

Auzokideek esan ziguten berrehun urte baino gehiago izango direla errota lanei utzi ziela.

Angiozar erreko urekin egiten zuen lan. Gaur egun oso hondatuta dago (aurri egoeran).

Kokalekua: Bergararik Angiozarreko bidean goazela, bi kilometro.<

Amuskibar baserri-errotak 1922an aipatzen da eta Amuzquibar moduan 1927an.



Santa eskean

Aspaldiko ohiturari jarraituz, hainbat talde atera ziren **Santa Ageda bezperan** santa eskean, besteak beste, Jardunekoak, jubilatuek eta Maria-ren Lagundia ikastetxeakoak. San Jo-xepen ere erromeria ederra antolatu zuten, eta nahi adina dantza egiteko aukera izan zuten jubilatuek, argazkian ikus daitekeen moduan, **Migel Sagastume** soinu-jolearen eskutik.



A ze pieza!

Urraburu pieza galanta harrapatu zuen **Jon Diaz** 13 urteko bergarar honek Mutrikuko uretan, **3,125 kiloko**a hain zuzen ere. Pozik zegoen mutikoa, harro, bere arraina eskuetan hartuta, argazkian ikus daitekeenez. Bazkari ederra egingo zuten, bai, Jonen etxean!



Santa Agedatik San Blasera

San Blas eta Santa Ageda egunak zirela eta, azken 20 urteotako obiturari eutsiz ibilaldia egin zuen inguruko mendietatik zehar otsailaren 5ean argazkian ikus dezakezuen lagun koadrilak. Bergararik Antzuolako Galartza auzoko Santa Ageda ermitara abiatu ziren lehenengo. Kantuan egin ondoren, Gorlarako bidea hartu eta, bertan, hamarretakoa egiteko parada ere izan zuten. Indarrak hartu eta argazkia atera ostean, Murinondoko San Blas ermitan amaitu zuten ibilbidea.

San Blasak Murinondon

Joan zen egueanean, **hilaren 3an**, San Blas eguna zela eta jende mordoak bildu zen **Murinondoko ermitaren inguruan**, meza entzun eta euren opil, gailera, lepoko eta bestelakoak bedeinatzeko asmoz. Eguraldi ederra egiten zuela eta, ermitaren kanpoaldean ospatu ahal izan zuten meza. Meza ostean, lunch-a izan zen bertaratu ziren guztientzako. Asteburuan ere, hainbat ekitaldi izan ziren, hala nola, erromeria, mus txapelketa, dantza erakustaldiak, aizkolariak eta abar. Urte guztia eztarriko minik gabe pasatzeko moduan dira, bada, bedeinatutako opilak jan eta lepokoak jarri dituztenak!




Mariaren Lagundia

Haur Hezkuntza,
Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza
etapetarako
MATRIKULAZIO EPEA
ZABALIK
otsailaren 7tik 18ra

Irailetik aurrera
haurtzaindegia
ere bai!

- Ordutegia: 7:30-18:30
- Gurasoek umeak bisitatzeko aukera
- 7 urte arte
- Astelehenetik eguakitzera



ikastola

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 52. zenbakia. 2000ko otsailaren 11.

Liburutegia eskaintza zabaltzen

Irailetik hona ekarri dituzten liburuen zerrenda argitaratu dute

Antzuolako Udal Liburutegiak hemendik aurrera eskaintza zabalagoa izango du. Hau da, liburuak denbora gehiagoz eduki ahal izango dira eta aldizkariak ere etxera eramateko aukera izango da.

Udal liburutegian pilatzen den materialari erabilgarritasun handiagoa emateko asmoz, Udal Liburutegiko arduradunek aukera gehiago emango dituzte hemendik aurrera etxera zerbait eramaterakoan. Liburuen kasuan esaterako, bi aste barik, hiru asteko epea izango du bazkide bakoitzak liburua hartu eta berriz itzultzeko. Aldizkariaren kasuan, orain arte liburutegian irakurtzeko baziren, hemendik aurrera etxera ere eraman ahal izango dira. Entregatzeko epea, kasu honetan, astebetekoa izango da.

Filmak edo bideo eskaintza ere badu udal liburutegiak. Film gehienak umeentzako diren arren, badira bestelako filmak ere. Hauek hartzeko epea bi eguneko da, berriz itzuli aurretik.

CDak ERE BAI

Lierni Legorburu da udal liburutegiko arduraduna eta berak azaldu dizkigu liburutegian egingo dituzten aldaketak. Baina hauetaz gain, eta aurrera begira egingo den gizarte-etxea dela eta, liburutegian CDak ere egongo dira. Izan ere, "gizarte etxean, akaso, musika entzuteko txokoa egongo da eta, hori dela eta, laister musikako CDak ekarriko ditugu liburutegira. Hauek ere lagatzeko moduan egongo dira, epe mugatu batez, noski".

Iazko irailtik hona liburutegira iritsi diren liburuen zerrenda argitaratu berri



Liburuak, aldizkariak eta bideoak atera daitezke Udal Liburutegitik.

dute. Guztira berrogeita hamalau liburu dira. "Era askotako liburuak dira. Batzuk aipatzearen Unai Iturriagaren *Berandu da gelditzeko* eta Bernardo Atxagaren *Bambulo. Ternuako penak* aipatu genitzake euskaraz eta gaztelaniaz, berriz, Manuel Vazquez Moltalbanen *Marcos: El señor de los espejos*. Baina badira erabiltzeko liburuak ere zerrenda horretan, *Izendegia* esaterako. Pertsonen izenak euskaraz nola idatzi behar diren kontsultatzeko liburua da".


ALDIZKARI UGARI

Asko dira liburutegiko apaletan biltzen diren aldizkariak. Etxera ezin eraman izanakin hauetako asko bertan zabaldu barik gelditzea zekarren; horregatik erabaki dute bi astebetetz, liburutegitik ateratzeko aukera izatea.

Argia bezalako astekari orokorrez gain, bidaiei buruz, zientziak eta zineak eta bestelako gaiez hitz egiten duten aldizkariak daude aukeran.

Eskaintza zabala da. On egin! ■

■ ■ ■
Liburutegia 17:00etatik 20:00etara dago
zabalik astelehenetik ostiralera bitartean
■ ■ ■



E

rtzillan, Ibarretan, Irainen, Zorroztarrietan, Erautzan eta Ipurtikan hamar industrialde posible ikertzen ari da Udala. Ezer erabaki aurretik

lurraren bideragarritasuna ikusi behar da lehenengo. Valen Moñuxek azaldu digenez "enpresa txiki eta ertainendako lekua eta enpresa handientzako toki bila ari gara. Orain arte ikerketa urbanistiko eta topografikoak egin dira. Antzuolan ez dago zoru laurik eta daudenak Abiadura Handiko Trenak eta autobiak zeharkatu dituzte. Hori dela eta, mendira jo be-

Industrigune bila, hamar leku aukeran

Otsail bukaeran erabakiko da aproposena

harra daukagu eta horretarako azterketa geoteknikoak egiten ari gara". Azterketa hauen erantzuna otsailaren amaieran jasoko dute eta ondoren azterketa konpa-


ratibo bat egingo da azterketa ekonomiko batekin. Apirilean erabakiko dira leku posibleak.

Fotomuntaketak: Valen Moñux



IBARRETA

Matz Erreka handitzeko 7.000 m²ko gune eraikigarria aurreikusi da. Kontuan izanik futbol zelai batek 5.000 m² dituela...




ZUPIDE

Enpresa txiki eta ertainendako, 6.000 m²ko gune eraikigarria.



ERTZILLA

Enpresa txiki eta ertainendako, 4.800 m²ko gune eraikigarria gelditzen dira soilik, abiadura handiko trenak bertatik pasako da eta.



IRAIN A

Bidea eta erreka desbideratu beharko liriteke. 37.000 m²ko gune eraikigarria.



A: autobidea; B: Abiadura Handiko Trenea.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •




Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78


Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu




IRAIN B

Bidearen eskuma aldean, erreka eta bidea ikutu barik. 14.000 m²ko gune eraikigarria. A: autobidea; B: Abiadura Handiko Trena.




IRAIN C

Enpresa txiki eta ertainendako, 8.000 m²ko gune eraikigarria. A: autobidea; B: Abiadura Handiko Trena.




ERAUTZA

Mendi aldera jo beharko litzateke abiadura handiko trena dela eta. 28.000 m²ko gune eraikigarria. A: autobidea; B: Abiadura Handiko Trena.




ZORROZTARRIETA edo DESKARGA 1

San Blas ermitaren aurre aldean, errepidearen beste aldean, 22.000 m²ko gune eraikigarria. A: autobidea; B: Abiadura Handiko Trena.



IPURTIKA edo DESKARGA 2A

Erreka desbideratu beharko litzateke eta mendia bi aldeetatik moztu. 53.000 m²ko gune eraikigarria. A: autobidea.



DESKARGA 2B

Erreka errespetatuz eskuma aldera joz. 60.000 m²ko gune eraikigarria. Azken bi aukera hauetan kontuan izan behar da autobidea eta Antzuolaren autobidearekiko enlazea bertan gelditzen direla. A: autobidea.

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA **BERGARA**
609 157 131 609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Karnabalak prestatzen

Azken urteetan bezala herriko andra eta gizon lagun talde banak karnabal egunean dantzatzen ari dira herriko plazan. Entseguak hasi dituzte. Neskak

martitzen eta eguenetan 19:30etan elkartzen dira Maristetan. Astean joan ezin duenak, zapatutan 11:00etan du aukera. Mutilak zapatuetan 11:30etan.



SANTA AGEDA BEZPERA

1982an jaiotako kintoek Santa Ageda bezperan ohiturarekin bete zuten Jesus Etxeberriak ateratako argazkian ikusten denez. Horiek ahotsak horiek!

ERRETIRATUEN BATZARRA

Otsailaren 26an, zapatuan, jubilatuek batzar orokorra izango dute, zine aretoan. Bilera arratsaldeko 18:00etan izango da.

ARROLAREN IRTEERA

Datorren domekan, hilak 13, Kanpazarretik Santa Agedara joango dira Arrolakoak mendiz-mendi. Irteera 9:00etan plazatik.

ZUZENKETA

Aurreko Kontuolan (51. zenbakia), errekararen proiektua Eusko Jaurlaritzak egina zela jartzen zuen, baina ez da horrela. Proiektu hori Antzuolako Udalak eskatu eta ordaindua izan zen.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Karnabaletan de pirata jantziko haiz?
2. Eguraldixan buruz dihardue.

Izen-abizenak eta telefonua:

idolaz bertako hizkeria
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Ebagixa egin dot eskuan.
2. Oinez Juan gara basarrita.

Sarituak: Gaztetxokoa eta Inigo Iparagirre

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUKAITZA BAINO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

Amodioa zoin den...

Maialen Aizpiolea 18 urteko donostiarrak irabazi du amodiozko gutunen lehiaketako lehen saria

Azken urteotako ohiturari eutsiz, San Balentin egunean, astelehena, banatuko dira aurten ere Jardunek antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketako sariak. Euskal Herri osotik bidalitako 133 gutun jaso dira aurtengo edizioan eta Donostiara joan da lehen saria. Maialen Aizpiolea 18 urteko donostiarrak izan da irabazle, eroetxe batean dagoen emakume batek bere maiteari idatzitako kartari esker.

Emakumezkoak nagusi

Partehartzaileei dagokienez, orain arteko edizio guztietan, emakumezkoak gehiago izan dira. Aurten ere, jaso diren 133 gutunetatik %70 emakumezkoek idatzitakoak izan dira. Aurtengo irabazlea emakumezkoa izan da, baina zortzi edizioetatik hirutan bakarrik irabazi du neska batek, gainontzeko bostetan gizonezkoek eroan dute lehen saria.

Adinaren arabera, aurten aurkeztutako gutun gehienak (%88) 14 eta 25 urte artean daudenek idatzitakoak dira. 40 eta 52 urtekoen artean, 4 gutun jaso dira.

Gutunak lurraldeka banatuz gero, gehienak Gipuzkoatik bidalitakoak izan dira aurten, 87. Bizkaiatik ere dezentente etorri dira, 37. Beste lurraldeetatik askoz ere gutxiago: Arabatik 2, Nafarroatik 3 eta Lapurditik 2. Debagoieneko herrietatik 32 gutun jaso dira eta horietatik 19 Bergaratik bertatik.

Gutun maiteminak edo trajikoak

Xabier Larrañaga irakaslea eta amodiozko gutunen lehiaketa askotan saritua, Jasone Osoro kazetari eta idazlea, Mikel Urdangarin kantaria eta Unai Iturriaga bertsolari eta idazlea izan dira aurtengo epai-mahai osatu dutenak. Bestalde, irakurle gaztearen sarirako, beste epai-mahai bat osatu da herriko ikastetxeetako ikasleen artean. Honako hauek egin dute epai-mahai lana: Gorka Buruaga, Itxaro Aranzabal, Nagore Davila eta Garikoitz Garitano.

Amodiozko gutunen VIII. edizio honetara aurkeztutako 133 lanen artean, orohar, gutun maiteminak edo trajikoak izan direla esan du epai-mahaiak. Bestalde, erotismorik ez da apenas ageri, umoreak ez du presentzia handirik eta aurreko edizio batzuekin konparatuz, oraingo honetan harreman homosexual gutxi azaltzen dira.



Sariak Donostia, Nafarroa, Aretxabaleta eta Basaurira

Maialen Aizpiolea 18 urteko donostiarrak eroan du lehiaketako lehen saria "Arantza" izeneko gutunarengatik. Gutunaren honako balorazioa egin dute epai-mahaikideek: Unai Iturriagarentzat, "ez da gozoezia eta eztegi den gutun horietakoa, benetan gordina da". Jasone Osorok dioenez, "hitz gutxirekin gauza asko kontatzen ditu eta, era berean, oso bisuala da eta hasieratik harrapatu egiten zaitu". Mikel Urdangarinentzat, ostera, "maitasunaren alderdi ilunena, gorrototik gertuen dagoena, barrenak aztoratzen dituena, modu zuzen, sakon eta bortitzean azaltzen du". Azkenik, Xabier Larrañagak, "benetako amodiozko gutuna" dela esan du. Maialen Aizpioleak 75.000 PTAko saria jasoko du.

Bigarren saria, Nafarroara joan da. 26 urteko Daniel Martirena legasarrak iruñearrak jaso du. Epai-mahaiak esan duenez, oso ondo idatzitako eskutitza da, "mamia dauka, orijinala da eta umore zertzeladak ditu". Daniel Martirenak 40.000 PTA jasoko ditu.

Bergarako onenaren saria, berriz ere, Jon Sanchezentzat izan da. Aurtengo lehiaketaren zortzigarren edizioa da eta bosgarren aldia da Jonek bergarar onenaren saria eroaten duena. Orokorrean, gutun "hunkigarria" dela esan du epai-mahaiak. Jon Sanchezek 25.000 PTAko saria jasoko du.

Bestalde, herriko ikastetxeetako ordezkari osatutako epai-mahai gazteak, bi gutun saritu ditu ex-aequo. Alde batetik, Xabier Altube (27 urte) atxabalarrarena eta, bestetik, 17 urteko Etorne Lejarza basauriarrarena. Biek Xabier De Zerioen eskultura bana jasoko dute.

Lehen saria

MAIALEN AIZPIOLEA. 18 urte. Donostia

Agurutzetako sendategia 1999-XI-11

Gorroto ororen mugarriari

Balantza haruntz eta honuntz zebilek, eta ez duk erreza asma-tzen uneoro non gelditzen den: hire bizitzaren eskaratzen edo eta nire Herio punttuan. Apika berdinak dituk bata eta bestea; letra ezberdinez idatzi-riko sentimen bera.

Denborak ez baitik guztia orbaintzen (alperrik ariko dituk), sarri ubele-tatik odola xukatzeke gai ere baduk eta dagoeneko idor agerturiko taupadetan ez zagok hutsunea besterik mirestu ahal izateko. Begiak aterako nizkiake, hire biloa erauzi, hire azala laban zo-rrutz batez apurka-apurka moztu, guz-tia nirea izateagatik soilik. Krudelkeria

ziotek batzuk, baina ez al duk krudela-goia hire sareetan bitzta bat gatibu iza-tea? Beharrezkoa duk arnasa aurrera egiteko, baina zerbait gehiago behar diat nik bizirik mantentzeko. Ez nauk ni oraingoan Heriorekin solasean aritu-ko dena, nahikoa sofritu diat! Noiz ote duk hire garaia? Behin eta berriz nire buruan errepikatzen duk hau eta noiz, non eta nola pentsatuz nire mina samur zezakeat, hemengo ordu luzeak labur-tuz. Hire gorpua, hotz, bilotz epelduko niake nire eskuez, ukazioaren izu izan gabe. Eta ez uste inolako bildurrik izan-go dudarik; ez diat deus galtzeko, ba-lio apurra hire karterako argazkiak gal-du baitzian (ez pentsa, hire ondoren-goia argazkikoa izango duk).

Eroturik? Horrela ziotek. Nork daki. Ez niake ezetzik esango baina badakik "Amodioa zoin den zoroa" zio-kiok abes-tiak eta dagoeneko ez zekiat nire bu-

ruaren eta bihotzaren arteko indepen-dentzia non hasi eta non bukatzen den. Nire pentsamendu ilunean gorroto haut, baina mugarri honek ez dik kilo-metrorik markatzen; ba al dakik biho-tza urrun ala gertu dagoen? Plazerrez kenduko niake bizia, elkarrekin zerbait egin diagula esateko besterik baduk ere, baina portzelanazko gaztelu hone-tan papera eta luma ditiat arma baka-rak.

Gaurkoan ere buruak bihotza gain-ditu dik eta une honetan ez zekiat go-rroto ala maite haudan, bitartean den-borak bere aitzo zorrotzez odolostu-tzen dik hire taupaden erritmoan di-rauen gorputz hau.

Adioak ez dik zentzurik hire lazta-nik ez badiat oraindik usaindu

Uxue

"Zure izaera, zure aurpegia, zu abazteko beldurra neukan eta gaur egun ohean lo egin ezinik nagoela zugan pentsatzen hasten naizenean zure aurpegia gogoratu ezinik egoteak barruak jan egiten nau. Mindu egiten nau jakiteak argazki bat ikusi behar dodala zu zelakoa zinan gogoratzeke eta ez da zugan pentsatzen ez dodalako, nik neuk azaldu ezin dodana da."

ETORNE LEJARZA. Basauri
Irakurle gaztearen saria

"Imajinatu, imajinatu umeak jolasean, beren mugimendu zankarrekin, beren ezjakintasun inozoarekin, torpeak, bai torpeak, eta balaxe sentitzen naiz ni zurekin Naiara, torpe, azken aldiz Durangon izan ginenean bezala, zer esan ez nekiela, isilik, edo Mutrikura eraman zintudanean bezala, abuztu amaierako egun bartan, zu konkistatu nahian, torpe, haurrak jolasean bezala Naiara, haurrak jolasean, eta hori da bain zuzen adierazten duena."

XABIER ALTUBE. Aretxabaleta
Irakurle gaztearen saria



MAIALEN AIZPIOLEA. Lehen saria

"Emakumeek sufritzen dituzten tratu txarretan inspiratu naiz"

Aurten bigarren aldia da Maialen Aizpiolea Amodiozko Gutunen BERRIGARA Lehiaketara aurkezten dena. Iaz ere aurkeztu zen, baina ez zuen sari-rik jaso. Aurten, ordea, lehen saria irabazi du. "Ustekabe handia izan da, ez nuen espero" esan digu. Maialen Donostiako Antiguoa auzoan bizi da, 18 urte ditu eta Majisteritza ikasten ari da Donostian bertan.

G. Zer dela eta aurkeztu zinen lehiaketa honetara?

E. Idazteko zaletasun handia daukat, etxean aspertuta nagoenean-eta idazten dut normalean. Bestalde, hainbat literatur lehiaketatar aurkeztu izan naiz. 1997an Billabonako amodiozko eskutitzena irabazi nuen eta 1997an eta 1999an Urruzuno lehiaketako sari bana jaso nituen. Batzuetan lehiaketetarako propio idazten dut; beste batzuetan, berriz, lehendik idatziak daukadan lanak aurkezten ditut.

G. Hemen saritutako lan hau noiz egin zenuen?

E. Oinarririk jaso eta asti apur bat hartu nuenean idatzi nuen. Hasi eta bukatu, berehala egin nuen.

G. Gordin idatzi duzu, gorrototik gertu dagoen maitasuna islatzen duzu.

E. Bai, egia esan trajiko samarrak ateratzen zaizkit, maitasun garratza kontatzen duten horietakoak. Gogoratzen naiz, gutuna idatzi nuenean komunikabi-deetan bolo-bolo zebilela emakumeen tratu txarren kontua eta horren haritik idaztea pentsatu nuen.

G. Benetako amodio kartarik idazteko ohiturarik bai?

E. Ba ez, egia esan ez ditut benetako amodio gutunak idazten.

G. Astelehenean San Balentin eguna da. Ospatzeko asmorik?

E. Ez. San Balentin, egunero edo inoiz. Gaur egun, San Balentin egunak ez du arrazoirik, komertzialetik aparte.

Bergarako onena

JON SANCHEZ. 25 urte.

Ene maitea

Nire ohea utzi eta zuk egin ohi zenuen bezala musukatu nauen emakumea nor den ez dakit, baina ezaguna egin zait zuek galdetu diodanean sortu zaion begien lausoa. Hori izan da, hain zuzen ere, horrenbeste beldurtu nauena. Zure begirada ikusi dut haren begietan, zure malkoek egiten zuten bide bera egin dute haren diamantezko tantek, baina aurpegi ximurtu hori ez da zurea, ezta malkoaren bizia moztu duen esku dardartia ere.

Alemaniarra zirudien gaixotasun bat daukadala esan dit emakume ezegun horrek, eta Alt... ez-dakit-zer delako hori sendatzeko omen diren botikak eman dizkit kafesnearekin batera. Buelta eman orduko bota ditut denak leihotik behera, zu nire pentsamendutik desagertarazteko egina dagoen botikarik ez baitut sekula santan hartuko.

Gaiso nagoela! Zer gaisotasun moeta da gauean zurekin lokartu eta goizean harrotz baten laztanaz esnatzen nauena? Hori ez da gaisotasuna, deabruaren jokoren bat baizik.

Gogoan ditut itsasoak mendeetan zehar laztandurikoak ziruditen zure forma biribilak, dutxatu eta gero azalak oparitzen zidan lurrina, urteen poderioz ikasitako hitzik gabeko elkarriket-

ta haiek, horrenbeste gauza, une, soinu... Horregatik, zu ahazteko botikak eman dizkidan eskua bart gauean nire gorputza ferekatu zuena denik ezin dut sinistu. Zure esku zuriak arantzarik gabeko larrosa bezain lehunak ziren, gaurkoak berriz, izozturiko ipar-haizeak denbora luzez zigortutako lurra ziruditen: gogor, hotz, eta bizirik gabeak.

Zu noiz itzuliko zai jarraituko dudala adierazi nahian ikasi dut eskutitz hau, harro, dioenez ziur dagoenaren konfidantzaz, baina geroz eta beldurtuago nago. Esaldi berri bat idatzi baino lehen aurrekoa irakurri beharra daukat, eskutitza amaitutakoan nora bidali behar dudana ahaztu dut, eta hasieran horren harrotz ikusi dudana agurea geroz eta ezagunagoa egiten zaidala somatzeak beldurturik nauka.

Nire emaztea zela esanez gure ezkontzako argazkiak erakutsi dizkit Nikolasak (bai, zure izenez deitzeko esan dit) eta den-dena gogoratzen nuen: zure jantzi zuria, bazkalostean eroritako txokolatetako bertan marraztutako bihotza, lehenbiziko dantzan behin eta berriz zapaldu zintudala, eta noski, argazkiak zuri-beltzean diren arren, zure maitasun gorriak. Nola izan liteke guzti hau atzo gertatu eta gaurkoan dena horren desberdina izatea?

Iragana eta oraina nahasten ditudanean, harrotzen artean bizi naizen honetan, maite zaitudala dakit soilik. Gau-



zak ahazterazten omen dizkidan delako gaisotasun hori oso ongi ezagutzen duten egoitza batetara eraman behar nautela esan dit emakumē ezezagunak, han sendatuko nautela. Berdin dio, han ere ahaztuko ez zaitudalako.

Hau ez da amodiozko gutun bat. Amodioak bere baitan dauka bestearrekin egoteko beharra agertzen duen arren, maitasun hitzen malkoetan daztaturiko bihotzaren mingotsa somatzen bada ere; nahiz eta amoranteen zirriborroetan isladatzen diren hitzak erabili. Ez, hau ez da amodiozko gutun bat, agian horrela hasi den arren. Inork jasoko ez duen beldurrezko irrintzia da, inoiz entzungo ez den tristuraz bustiriko abestia, ispiluan begiratu eta nire aurpegia ez aurkitzeak sortu didan odol jarioaz idatzitako azken hitza.

Besterik gabe, eskutitza nolabait amaitu behar dudala-eta, barnean sentitzen dudana esatea besterik ez dut egingo: zauden tokian zaudela beti maiteko zaitudala, inguruan ditudan iraganik gabeko pertsona hauek esaten didatenari jaramonik egin gabe.

Musu bat...



Sari banaketa ekitaldia astelehenean

Lehiaketako sari banaketa ekitaldia datorren astelehenean izango da Kartzela Zaharrean. Edizio guztietan ohizkoa izan denez, aurten ere San Balentin egunean banatuko dira sariak. Bertan, saritutako bost gutunen egileek euren kartak irakurriko dituzte, Ibon Larrañaga kitarrajolearen laguntzaz. Ondoren, Aitzol Mujika kantariaren eta Ibon Larrañaga kitarrajolearen emanaldia izango da. Lehiaketako epai-mahaikideak bertan izango dira, Mikel Urdangarin izan ezik, Eskozian baitago. (Argazkian, iazko irabazleak).

"Belarritako luzeak dilindan, beltz koloreko perla faltsuak zituztela apaingarri. Gero, S neurriko blusa gorria, ederki loturik zure L tamainako bularraldera. Lepo zabalekoa gainera, ditizorroaren tiranteak erakutsiz. Eta sujetadoreak erakustekoak zirenez, sosten gorriak ala beltzak jantziko zenituen balabeharrez. Zuriak eramanen zenituen baldin eta ezkutuan gelditzen baziren jertsearen babesean. Bada, afarian, ardoak ederki busti zituen guztion zintzurak, iltzatu ere zenbaitzuen begiradak; gureak kasurako."

DANIEL MARTIRENA. Legasa (Nafarroa)
Bigarren saria

Udalak Aspe eta Asegarcerekin kontratua sinatu zuen atzo

Zapatuan, Aspe antolatutako jaialdia Bergaran

Udala eta Aspe eta Asegarcerekin pilotaren enpresaren kontratu berria sinatu zuten atzo eguerdian Udaletxean. Kontratu honen arabera, aipatutako bi enpresek Bergarako frontoia jestionatuko dute aurretik.



Argazkian, ezkerretik eskumara, Etxaniz, Muruamendiarrak, Berraondo eta Zezeaga.

Begarako Udalak eta Asegarcerekin bost urteko kontratua sinatu zuten 1997ko urtarrilaren 15ean, frontoia jestionatuko Asegarcerekin esku utziz. Ostegunetan sinatutako kontratu berria jasotzen denez, Asegarcerekin eta Aspekin aurretik Udala Pilotalekuaren jestionatuko kontratua sinatu zuten 12 pilotak jaialdi antolatzearen konpromisua hartzen du. Beraz, aurretik, gutxienez, 24

jaialdi izango dira Bergaran. Kontratu berria sinatu ondoren, aipatutako enpresek datorren 2001eko urta-

rrilaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dute datoreen urteko egutegia. Enpresa bakoitzak 50.000 pezeta

(dagokion BEZarekin) ordaindu beharko du antolatutako jaialdi bakoitzagatik. Bestalde, jasotakoa baino

Antzuolako Ugariaga baserrikoa, Iker Muruamendiarrak 1977ko abenduaren 8an jaio zen. 1,80 metroko altuera dauka eta 77 kilo pisatzen ditu. Abendu erdialdera Aspe enpresarekin hiru urteko kontratua sinatu ondoren, zapatuan profesionalen artean debutatuko du. Lehenbiziko partiduan, Arroyorekin bikotea osatuz, Berraondo eta Almandozen aurka jokatu du.

Ikerrek bere txikitako ametsa gauzatu du zapatuan; "txikitatik profesionaletara heltzeko ametsa neukan eta azkenean iritsi da ordua. Salto handia da profesionaletara pasatzea, baina gertu nagoela uste dut". Azken partidua abenduaren 31n jokatu zuen eta, eskuetan izandako arazo batzuk medio, ordutik ez du partidurik jokatu. Dena den, guztiz erreperatuta dago eta gimnasioan lanean izan ondoren, azken egunak arlo fisikoa eta belozidada hobetzeko ahalegi-

Iker Muruamendiarrak debuta zapatuan



netan eman ditu. Orain arte Herri Arteko Txapelketan Antzuolako taldearekin jokatu izan baidu ere, 10 urte zituenetik Bergara Kirol Elkartearen pilotari sailean egon da. 1998. urteko urrian, Ruizekin batera, munduko txapelketa eskuratu zuen Mexikon eta urte berean Elgetako 23. urte azpikoentzako lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen. Aurreko urtean, berriz, azpitxapelketa izan genuen Elgetan. Nahiz eta ordezko modura joan, Munduko Kopa irabazi zuen iaz Almerian.

Bere burua definitzeko orduan, zera esan digu: "defentsan nahiko ondo aritzen naizela uste dut eta erasoan gauza asko ikasteko daukat. Bestalde, kolpe piskat falta zaidala esango nuke". Reyes Azkoitia izan digu Ikerren entrenatzaileetako bat. Reyesek esan digunez, "lehenguneari berarekin egon nintzen eta esan nion pozez zorutzen nagoela. Berarendako kristoren ilusioa eta guretako ere bai, merezi duelako. Niretako akontezimendu handia da".

jaialdi gehiago antolatuz gero, enpresa bakoitzak 25.000 pezeta ordainduko lituzke 13. jaialditik aurrera. Beti ere lehen mailako pilota jaialdiak antolatzea da lehenbiziko helburua eta Erramu Zapatuan, Pazkue-tan (zapatutik martitzenera bitartean), San Martin egunean eta abenduaren 25ean pilota jaialdiak antolatzea jasotzen da.

PILOTA JAIALDIA ZAPATUAN

Zapatuko jaialdian, Iker Mu-ruamendarazzen debutaz gain, Jokin Etxanizek eta Aitor Elkorok Asier Olaizola eta Jose Mari Zezeagaren aurka jokatu duten partidu erabakiorra jarraitu ahal izango dute pilotazaleek. Material aukeraketa eguzten arratsaldean egin zuten lau pilotariak. Etxanizek eta Elkorok 102, 104,5 eta 104 gramoko hiru pilota aukeratu zituzten eta Olaizolak eta Zezeagak apartatutakoak 104,1, 103 eta 102, 5 gramotako pilotak ziren. Antton Maiz eta Ladis Galarza pilotari ohiak izan ziren pilota aukeratzailerak eta kirol kazetari dezente bildu zen eguztenean Frontoian.

Jokin Etxanizen arabera, "irabazten duen bikoteak aurrera egingo du eta galtzen duena, berriz, kanpo geratzen da. Partidu zaila izango da, Zezeaga momentu oso onean dagoelako eta Asierrek ere erakustea nahi izango duelako txapelketan leku bat zuela. Aurkari gogorak izango dira". Materialara dagokionez, Jokinen hitzetan, "guk aukeratutako pilotak zerbait biziagoak dira baina jokatzekoak dira eta paliza handia hartuko dugu ziurrenik zapatuan". Zapatuko pilota jaialdia Aspek antolatzean, gure herriko pilotariak bere ikuslegoaren aurrean jokatzeko au-



Aitor Elkorok pozik azaldu zen eguztenean aukeratutako materialarekin.

kerak izango dute berriz; "hona etortzeak bi gauza suposatzen du: alde batetik gustora gaude norberan herrian jokatzeko aukeragatik baina, bestalde, horrek presio gehiago ekar diezakiguke. Ea nerbioak alde batera lagatzea lortzen dugun eta partidu on bat jokatzeko dugun. Eta gero ba onenak irabaz dezala".

JOSE MARI ZEZEAGA, ITXAROPENTSU

Jose Mari Zezeaga uberar atzelaria guztion ahotan dago txapelketa ona jokatzeko ari delako; "azken lau parti-

duetan oso gustora egon naiz eta maila horri eustea gustatuko litzaidake". Zapatuko partiduari begira, "oso zaila izango da Etxaniz eta Elkorok menderatzea eta oso serio jokatu beharko dugu. Zapatuan partidu txarra egin ezker, etxera goaz eta hori tristeza litzateke. Dena den, esperantza beti daukagu eta guretako zaila izan arren, beraiei ere asko kostako zaie garaipena lortzea, momentu onean garelako. Laurok huts gutxien egitera aterako garela uste dut eta partidu luzea izan daiteke zapatukoa".

"Oso zaila izango da Etxaniz eta Elkorok menderatzea; oso serio jokatu beharko dugu" ZEZEAGA



Jokin Etxanizek bere mailarik onena eman beharko du zapatuan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Billabona

Infantilak
Zapatua, 11:00. Ipintza

Bergara-Antoniano

Lehen mailako jubenilak
Zapatua, 16:15. Agorrosin

Bergara-Mondragon

Neskak
Zapatua, 18:00. Ipintza

Bergara-Pasajes

Bigarren mailako jubenilak
Domeka, 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Bera Bera

Jubenil neskek
Zapatua, 16:00. Kiroldegia

Bergara-Pulpo

Kadete neskek
Zapatua, 17:15. Kiroldegia

PILOTA

PROFESIONALAK

Berraondo-Almandoz/ Muruamendaraz-Arroyo

Etxaniz-Elkorok/
Olaizola I.a-Zezeaga

Aritz-Gastesi/ Chafee-Alberdi III.a

Bihar, zapatua, 1
7:00etatik aurrera
UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Goierri 1

Jubenilak
(aurretik infantilen arteko anaiarteko partidua)

Gaur, eguakitza, 19:30etatik aurrera
UDAL PILOTALEKUAN
DEBA ARROKO TXAPELKETA

Bergara-Arrasate

Martitzena, 19:30etan,
UDAL PILOTALEKUAN



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Amilotx-Mongatxurak
10:30: Azpeitxi Jatetxea-Moskis
11:30: Shaktale-Torrekua
12:30: Agirrebeña-Bildurbarek
19:00: Sirimiri Eri-Irubide Jatetxea
20:00: Soropotoak-Ortzi

Azpeitxi
Amilotx
Amilotx
Amilotx
Ortzi
Sirimiri Eri

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Guadalest-Txipirion
10:30: Pagomendi-Ari Ari
11:30: Komando Piperrak-Canalejas
12:30: La Juve-Etegeabe
16:00: Bayer-Tom Cat Argandolas
17:00: Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov
18:00: Urrutxurtu-Patatus
19:00: Vacalouras-Buya
20:00: Patxaran Team-Amoskibar

Ari Ari
Txipiron
Txipiron
Txipiron
P. Bergara
Bayer
Bayer
Patatus
Vacalouras

DOMEKAN KANPOAN

10:30: Ufala-Errotagain
11:30: Fac-Aterpe
12:30: A Ze Flaxa Etxagi-Ion Autoak

Fac
Errotagain
Errotagain

EMAITZAK

A MULTZOA

Etengabe-Pinturas Bergara **0-7**
Irubide-Azpeitxi Jatetxea **0-2**
Moskis-La Juve **2-1**
Ari Ari-Sirimiri Eri **2-4**
Mo(ko)lotov-Pagomendi **3-5**

B MULTZOA

Bildurbarek Opel Lam-Amilotx **0-3**
Patatus-Patxaran Team **0-24**
Tom Cat Argandolas-Urrutxurtu **2-9**
Amoskibar-Agirrebeña Jatetxea **4-3**
Mongatxurak-Bayer **1-2**

C MULTZOA

Ion Autoak-Uve Bikoitza **7-2**
Ortzi-Vacalouras **4-2**
A Ze Flaxa Etxagi-Torrekua **17-4**
Buya-Shaktale **1-3**

D MULTZOA

Errotagain-Fac **6-1**
Xurruapak-Ufala **7-4**
Bar Canalejas-Guadalest **8-1**
Aterpe-Komando Piperrak **3-5**

GORA ETA BEHERA



Garaipen inportanteak

Ion Autoak 7 eta 2ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Uve Bikoitzari. Multzo berean, A Ze Flaxak lidergoari eutsi zion 17-4 irabaziz eta D multzoan Canalejasek 8-2 irabazi zion Guadalest taldeari. Azpeitxik ere 3 puntuak lortu zituen.



Patatus

B multzoko azken tokian dagoen Patatus taldeak denboraldiko goleadarik handiena jaso zuen, Patxaran Team taldearen aurka 24-0 emaitzarekin galduz. Okerrago, ezin.

ARGI!

Taldeak eta jokalaririk zigortuta

Bildurbarek Opel Lam taldea ez zen aurkeztu Amilotx taldearen aurka partidua jokatzera eta, beraz, antolaketak 3 puntu kendu dizkio. Bestalde, Vacalouras taldeko Javi Fernandezek partidua bateko zigorra bete beharko du.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	39	14
2. Azpeitxi Jatetxea	30	14
3. Sirimiri Eri	26	14
4. Irubide Jatetxea	25	14
5. Pinturas Bergara	22	14
6. Etengabe	15	14
7. Ari Ari	13	14
8. Moskis	12	14
9. Mo(ko)lotov	7	14
10. La Juve	6	14

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	37	14
2. Ortzi	33	14
3. Shaktale	25	14
4. Uve Bikoitza	22	14
5. Ion Autoak	19	14
6. Vacalouras	17	14
7. Agiñazpi	13	13
8. Buya	13	14
9. Soropotoak	7	13
10. Torrekua	7	14

B multzoa

	P	J
1. Bayer	35	14
2. Mongatxurak	27	14
3. Amoskibar	25	13
4. Urrutxurtu	23	14
5. Patxaran Team	21	14
6. Bildurbarek Opel Lam	19	14
7. Amilotx	16	13
8. Tom Cat Argandolas	12	14
9. Agirrebeña Jatetxea	11	14
10. Patatus	1	14

D multzoa


	P	J
1. Errotagain	38	14
2. Fac	29	14
3. Bar Canalejas	28	14
4. Guadalest	28	14
5. Artusamak	25	13
6. Xurruapak	19	14
7. Txipiron	13	13
8. Komando Piperrak	7	14
9. Aterpe	2	14
10. Ufala	1	14

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13




Irizar 2

943 76 14 95

JAUJA
KIROLAK

mahoneroak



MARTIN ETXEBERRIA
BKEko bazkidea

Zapatuan aurtengo denboraldiko partidurik txarre-
na ikusi genuen Agorrosi-
nen, askogatik gainera. Gai-
nera, bederatziti jokalariren
kontra jokatu zuen Berga-
rak bigarren zatiaren azken
partean eta hala ere larri ibi-
li ziren hiru puntuak esku-
ratzeko. Epailearen lana
nahiko eztabaidagarria izan
zen baina nire ustez ondo
egon zen, tolosarrek egur
asko eman zutelako.

Bergara ondo ikusi dut
orain arteko partiduetan; ez
dut ikusi ekipo hoberik.
UPV taldearen aurka 1-4
galdu zuten baina 10 jokala-
rrekin, 1-2koarekin, parti-
dua berdintzeko moduan
egon ziren bergararrak.
Ikusten da ofizio gehiagoko
taldeak daudela, bizkaita-
rren artean batez ere (Are-
nas etabar) baina ez dut
ikusi garbi-garbi Bergara
baino ekipo hoberik. Berga-
rak bost bat puntu gehiago
eduki zezakeen sailkapene-
an nire ustez. Ea orain La-
gun Onak taldeari ere ira-
bazten dioten, azpeitiarren
kontra ere *gol-averagea* al-
de izateko.

Otsein Saria

Tolosaren aurkako partiduan
hauek nabarmendu ditugu:

Etor Laskurain 3 puntu
Txonan Gallastegi . . 2 puntu
Gorka Dueñas Puntu 1

Etxeko partidua bakarrik
hartzeko dira kontuan.

kronika BKEko infantil futbol taldea

Kopako lehen garaipena

BERGARA 3

AMARA BERRI 2

Bergara: Paul Lopez de Subijana, Iosu Agirrezabal, Igor Urteaga, Borja Olabarria, Mikel Salegi, Iker Orgaz, Ibon Leibar, Iñaki Elkorobarrutia (Aimar Errasti, 36. min.), Oier Tola, Eloy Crespo (Asier Carballo, 36. min.) eta Ibai Altuna. Iulen Murguruza, Ion Inclan eta Iosu Zabaleta aulkian izan ziren.



Argazkian, Amara Berri taldeari zapatuan nagusitu zitzaion talde bergarra.

Begarako infantilek kopa txapelketako lehen garaipena lortu zuten zapatuan Amara Berri taldearen aurka. Liga txapelketan hirugarren postuan sailkatu ziren Pablo Gallastegi eta Mariano Jauregiren mutilak, eta hiru punturengatik ez

zuten igoera fasea jokatzetik izan, Aizkorri (Segura) eta Urola taldeen atzetik geratu ondoren. Orain kopa txapelketan murgildurik ditugu eta laugarren partidua jokatu arte itxaron behar izan dute lehenengo garaipena eskuratzeko. Zapatura

arte puntu bakarra zeukaten sailkapenean eta azken tokian genituen bergararrak. Hala ere, sailkapeneko 3. tokian zegoen Amara Berri taldearen aurka garaipen garrantzitsua lortu zuten. Gauzak etxekoen alde jarri ziren lehen zatiaren erdial-

dean Ibon Leibarrek egin dako golari esker, eta atsedaldian gol bateko abantailarekin joan ziren aldageletara mahoneroak. Bigarren zatian, berriz, donostiarrek aurrera egin zuten eta bi gol egin zituzten. Hala ere, Bergarak bere jokoari eutsi zion eta Oier Tolak berdinketaren gola lortu zuen. Eta partidua amaitzeko 10 minutu falta zirenean, berriz ere Tolak garaipenaren gola egin zuen, area barruan baloia sareetara bikain errematatzean. Azkenean, hiru puntuak etxean geratu ziren eta garaipenak meritu handiagoa dauka, Iñaki Lasa, Alberto Dobao, Mikel Gallastegi eta Ibai Igarza infantilak kadete taldearekin aritu behar izan zirelako zapatuan Almenen aurka Aretxabaletan (1-2).

Zapatuan berriz ere etxean jokatu beharko du Bergarak, eta goizeko 11etatik aurrera, beraiekin batera sailkapeneko azken postuetan dagoen Billabona taldearen bisita jasoko dute Ipintzan. Joan zen astean lortutako garaipenak konfiantza emango die sailkapenean gora egiten hasteko.

ANDER AGIRRE / Txirrindularia

“Mendian moldatzen naiz ondoen”

Ander Agirrek (18 urte) afizionatueta lehenengo urtea izango du aurten. Bihar, zapatua, Ulma-Cegasa taldea aurkeztuko da Oñatin eta Anderren lehenbiziko asmoa kategoria berrira egokitzea da.

G. Nola sortu zen Ulma-Cegasarekin korritzeko aukera?

E. Jose Luis Fernandez zuzendariak beraiekin korritzeko aukerak izango nituela komentatu zidan iaz eta azkenean fitxaketa gauzatu zen. Benidormen astebeteko kontzentrazioa egin genuen Gabonetan eta oso gustora nago, taldekideon artean oso giro ona dagoelako.

G. Aurreko denboraldian zer

moduz ibili zinen?

E. Normal. Errekuperazio arazo batzuk izan nituen eta ez nuen bereziki destakatu.

G. Afizionatu denboraldia gogorra izango da...

E. Bai. Karrerak bukatzen eta afizionatu erritmora egokitzen ahalginduko naiz. Baina 24 urtekoekin batera korritzea ez da erreza izango.

G. Zenbat aste

daramazu entrenatzen?

E. Azaroan gimnasioan eta mendian entrenatzen hasi nintzen eta abendu aldera bizikletarekin. Azken hiru asteetan bizikletarekin nabil bakarrik. Eguakitzetan izan ezik, beste egun denetan entrenatzen dut, eta zapatu eta domeketan entrenatzen dut gogorren, bost ordu eta erdi inguru.

G. Zeintzuk dira zure ezauzgarriak?

E. Nire ustez mendian moldatzen naiz ondoen.

G. Gustoko korrikalari bat?

E. Jalabert, *todoterrero* bat delako.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubieta. 943 76 12 61.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02 (gauetz).

Pisua erosiko nuke Zurraderon. 943 76 52 31.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Pisu txiki bat erosiko nuke (igogailuduna derrigorrez). 943 76 12 61.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan etxea alokatuko nuke. Deitu 629 01 56 91 telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Pertsona behar da

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatu
Deiak
Bestelakoak

etxea konpartitzeko. 943 76 31 23.

Pisua konpartituko nuke. 667 52 48 98 (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekuan garajea salgai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Antzuola, Kalegoi. 943 76 47 16

Masterreka (Pertxa az-

pian). 696 460 406

Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

ERRENTAN EMATEKO

Soto bat alokairuan edo salgai Matxiategin. 166 m². 943 76 28 09.

S. Lorentzo. 943 76 18 01.

Errentan edo salgai Ibargarain. 943 76 20 07.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke. 943 76 23 68 (Maite).

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Lokal bat salgai edo alokairuan. Bulego lanerako prestatuta.

58 m². 607 344 658.

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean

35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Espe-rientzia. 943 76 35 95.

Garbiketa lanak egiteko neska eskaintzen da. 943 76 45 02 (M. Karmen).

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatuetan (baserri lanak...). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Emakumea goizez lanerako gertu. 607 326 706.

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Etxeak orduka edo atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.

BIZKOTYOK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larranaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Tabernarako ZERBITZARIA behar dugu

943 76 50 99

Mutil gaztea behar da BASERRIKO LANETARAKO

943 76 12 66

Tabernarako ZERBITZARIA behar dugu

943 76 59 19

PAN DE RUKUA TXATE XEI

Asteburuetan bertako babak eta saibeskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko litzuzke. 609 77 01 33 (Asis).

23 urteko mutila lanerako gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

ESKAERAK

Emakumea behar da: bi ume zaindu eta etxeko lanak. 943 76 48 76.

Denda orduetan umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles eta frantses klaseak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHO. Arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

ESKAERAK

Pertsona bat behar da 11 urteko mutiko bati partikularrak emateko. 943 76 46 49.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Iveco Pegaso furgoneta-kamioia (SS-AP). Garraiorako txartel nazionalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Kawasaki Volcan motorra (500 cc.). 21.000 kilometro. 943 77 08 69.

Suzuki motorra egoera onean. 943 76 37 83 (Jose Mari, 10:00-17:00).

Ford Escort familiarra (SS-AK) egoera onean. 656 74 49 14.

Kadett 1.4. 630 750 099.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Renault 21 (SS-Z). 943 76 26 92.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 607 76 67 60.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

Txahalak eta bildotsak izozkailuan sartzeko; labeldunak; natural hazita. 689 541 861.

8. DENETARIK

SALDU

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Imar karro-denda. Egoera eta prezio ona. 943 76 59 56.

Bizikleta estatikoa. Egoera ona. 943 76 56 51.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. 10.000 PTA. 943 76 55 63.

366 MH Pentium ordenadorea. Disko gogorra 2

GB, CD eta telebistaren plaka. 943 76 19 16.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi bafle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

HARTU

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.

GALDU


Eskularru marroia galdu dut Fraiskozuri inguruan. 943 76 10 44.

Betaurrekoak. Fundan Apaolaza jartzen du. 943 76 60 18.

Game Boy urdina. Frontoian. 943 76 39 11. Eskertuko da.

AURKITU

Betaurrekoak Pol-Poleko iturrian. 943 76 28 19.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- TORNU KONBENTSIONALEKO LANGILEA**
Bilbo. 26595/6
- KOMERTZIALA**
Bilbo. 26883/2
- KOMERTZIALA**
Bilbo. 26884/2
- KOMERTZIALA**
Bilbo. 28190/2
- SOLDATZAILEA**
Gernika-Bermeo. 26859/2
- BEIRAGILEA**
Bilbo. 27022/3
- DIESEL MOTOREEN MEKANIKARIA**
Bilbo. 27093/2
- INFORMATIKA IRAKASLEA**
Bilbo. 27282/1
- INFORMATIKA PROGRAMAZIOARRAKO LAGUNTZAILEA**
Bilbo. 27618/2
- KABLEATZAILEAK, 2**
Gasteiz. 27682/4
- KABLEATZAILEAK**
Donostialdea. 27683/5
- BEROKUNTZA GALDEREN MANTENIMENDU ETA GARBIKETARAKO 2 PERTSONA**
Gasteiz. 27711/7
- APALEN MUNTATZAILEA**
Bilbo. 28282/2
- INDUSTRIAL DELINEATZAILEA**
Debabarra. 27391/6
- ANALISTA PROGRAMATZAILEA**
Ibai ezkerrekoa. 28478/3
- INFORMATIKARIA, LH-II**
Bilbo. 28508/2
- INFORMATIKAKO IRAKASLEA**
Bilbo. 28518/2
- INFORMATIKAKO IRAKASLEA**
Gasteiz. 28519/2
- INFORMATIKAKO IRAKASLEA**
Donostia. 28520/2
- KOMERTZIALA**
Kantauri Arabarra. 28522/1
- VISUAL BASIC IKASTARORAKO IRAKASLEA**
Donostia. 28523/3
- ENPRESA MEDIKUA**
Markina-Ondarroa. 28524/1
- ERROTULUGILEA**
Ibai ezkerrekoa. 28631/1
- PEOIAK, 2**
Debagoiena. 28715/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



ITURRIETA

Arnaga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Sagardotegia



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



IRAEGI ASEGURUAK

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA. Pintorea

"ARCOk norberaren lana ezagutzera emateko aukera paregabea eskaintzen du"

Aurten Euskal Herriko zazpi galeria joango dira Madrileko ARCO nazioarteko arte azokara. Manu Muniategiandikoetxea bergarar artista gazteak ere DV Galeriararen bitartez bere zenbait lan eramango ditu bertara.

G. Lehen aldia al da ARCO-n erakusten duzuna?

E. Ez, aurtengoa joaten naizen bosgarren aldia da, eta orain artekoa oso esperientzia positiboa izan da. Duela lau urte, adibidez, oso urte ona izan nuen azokan, eta Coca-Cola eta Arabako Museoak esaterako, hainbat lan erosi zizkidaten. Iaz ere, kasualitatez joan nintzen, azken uneko erabakia izan zen, eta azkenean oso ondo ateratu zen.

G. Zein da ARCOra joatearen helburua? Ze aukera ematen ditu?

E. Ez da ahaztu behar ARCO, berez, azoka bat dela, arte galerien azoka bat, eta azoka guztietan bezala, lehendabiziko helburua saltzea da. Saltzeaz gain, kontaktuak egiteko ere aukera oso ona eskaintzen du. Aurreko urteetan egindako kontaktuei esker egin ditut, adibidez, Tolosa eta Iruñeko erakusketak eta baita maiatzean Ourensean egingo dudana ere. Kontuan hartu behar da nazioarteko azoka dela, eta kanpoan ezagutzera emateko auke-



Manuk dozena bat lan eramango ditu nazioarteko azokara.

ARTXIBOA

ra paregabea ere eskaintzen duela. Artearen mundua oso zabala da, eta azoka hau, nolabait esatearren, lehiotxo bat da, eta gure muturtxoa lehiotxo horretatik atera eta erakusten saiatu behar dugu. Gainera, beste artisten obrak ezagutzera ere interesgarria izaten da artistontzat.


G. Ze lan hautatu dituzu Madrilgo azokarako?

E. Horrelako azoketan, galeria bakoitzak bere standak izaten ditu; gurean, aurten, eskultore bat izan ezik, beste guztiok pintoreak gara. Standak eskaparate bat da guretzat, beraz, hor jartzen ditugu lanik onenak; baina, horretaz aparte, katalogoak eta beste lan batzuk ere eramaten ditugu. Nik aurten bi triptiko handi eta 10 koadro txiki eramango ditut.

G. Pintatzea, zure kasuan, hobya ala bizibidea da? Possible al da gaur egun eta Euskal Herrian hortik bizitzea?

E. Oso nekeza da hortik bizitzea; nik esango nuke mirari bat dela. Ni gaur egun hortik bizi naizela esan daiteke, baina nire neska-lagunari eta familiari eskerrak. Esaten dute mundu honetan lehenengo urteak izaten direla okerrenak, baina nik urte mordoak daramat eta ez dakit hori horrela ote den. Ez daukazu soldata finkorik, ez dau-

kazu segurtasunik, ez dakizu hemendik denbora batera zer gertatuko den. Duela hiru urte Zarautzeko Kultur Etxean pintura klaseak ematen hasi nintzen, baina utzi egin nuen. Eta aurten berriro hasi naiz, soldata batek segurtasuna ematen didalako. Hala ere, gaur egun eta hemen, Euskal Herrian, oso zaila da, ia-ia ezinezkoa, hortik bizitzea.



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



Hamabost eguneko epea dute musika taldeek Seminarioko lokala lagatzeko.

Seminarioko lokalik gabe Bergarako zortzi musika talde

Bergarako zortzi musika talde lokalik gabe geratuko dira, ensaiatzeko erabiltzen dituzten Semanioroko lokalak laster botako baitituzte. Hamabost egunetako epea eman diete handik irteko.

Zortzi talde dira gaur egun Seminarioko lokalak, elkartu eta ensaiatzeko erabiltzen dituztenak. Orain dela hamar bat urtetik hona hainbat musika talde pasatu dira bertatik. Baina orain, hirigintza proiektuen barruan, lokal hori bota beharra dagoela aurreikusten da, zonalde horretan etxe ugari eraikitzen ari baitira, eta ingurune guztia urbanizatu nahi baita.

Iñigo Alberdi kultur zinegotziak BERRIGARARI adierazi dioenez, eguakitzean dauka hitzordua musika taldeetako ordezkariekin, arazo honi irtenbideren bat ematen saiatzeko. Bere esanetan,

“kontuan hartu behar da Bergaran 20 musika talde baino gehiago daudela, ez Seminarioko lokalak erabiltzen dituzte 8 hauek bakarrik, eta nire ustez, musika taldeen gaia globalki tratatu beharrekoa da, talde guztiei eman behar zaie irtenbide eta aukera berdina”. Alberdiren esanetan, “aukera posible bat, gai hau Gazte Lokalaren proiektuaren barruan bideratzea litzateke”. Gazte Lokalaren aldeko mugimendukoek Kartzela Zaharrera joateko proposamena onartzekotan, “Kartzelan bertan ensaiatzeko gela batzuk prestatu daitezke” dio Iñigo Alberdik.

Aitor Borobia musika talde bateko kidearen esanetan, “guk ulertu genezake Seminarioko lokala botatzea, baina ensaiatzen jarraitzeko beste tokiren baten beharra daukagu lehenbailehen, bestela, zer egin behar dugu musika taldeok?”.

salduenak urtarrila

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. OSTIRALAK
Jon Arretxe. Elkar
2. NIRE KULEROAK
Anjel Lertxundi. Elkar
3. HAU DA ENE ONDASUN GUZIA
Joseba Sarrionandia. Txalaparta
4. AI, AMA!
Arantxa Iturbe. Alberdania
5. BANBULO 3. TERNUAKO PENAK
Bernardo Atxaga

GAZTELERAZ

1. EL ULTIMO JUDIO
Noah Gordon. Ediciones B
2. MELOCOTONES HELADOS
Espido Freire. Ediciones Planeta
3. EL AMANTE LESBIANO
Jose Luis Sampedro. Plaza & Janes
4. UNA MUJER DIFÍCIL
John Irving. Tusquets
5. LO ES
Frank McCourt. Ediciones Maeva
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. GERNIKA
Mikel Laboa
2. TATUATU ZENIDAN ZERUA
Lorelei
3. CALIFORNICATION
Red Hot Chili Pepper
4. 19 DIAS Y 500 NOCHES
Joaquin Sabina
5. TODA LA PUTA VIDA IGUAL
La Polla Records
6. TODO MANA
Mana
7. ALLY MCBEAL B.S.O.
Vonda Shepard
Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMBA

Ezker eskuma

1. Eguna argitzen hasten duen unea.
2. Asiako estatua.
3. Röntgen.
4. Hondarra. Edari alkoholodun.
5. Hegazti mota.
6. Oinarrizko edaria. Diosala hitza. Sufrea.
7. Mirakulua. Bokal errepikatua.
8. Haizearen jainkoa. Lege.
9. Azkenekoa. Oxigenoa. Bokala. Auzo, hitz elkarketan.
10. Katu eme. Du, haiei.

Goitik behera

1. Emakume.
2. Teilatuko haga.
3. Amerizoa.
4. Oihu. Txiru, behartsu.
5. Oparo. Kaosaren erdian. Noren atzikia.
6. Siriako. Sortu zintuena.
7. Perpausa. Alderantziz, egile atzikia.
8. Naizen hau. Arabako herria. Bostehun.
9. Iparraldean, handi samar. Auto-marka.
10. Bat. Zakur., Arazoa.


Soluzioa

1. Emakumezko. 2. Gapiro. Am. 3. Uru. Artoe. 4. Naro. Ao. En. 5. Sfirar. Ama. 6. Esaldia. el. 7. Ni. Aia. D. 8. Tarro. Audi. 9. I. Or. Auzia. 10. Amas. Aek.
1. Egunsentia. 2. Malaisia. R. 3. Apurra. Hon. 4. Ki. Oilarra. 5. Ura. Adio. S. 6. Miraria. Aa. 7. Eolo. Arau. 8. Z. O. A. Auzia. 9. Kateme. Die. 10. Omenaldiak.
1. Egunsentia. 2. Malaisia. R. 3. Apurra. Hon. 4. Ki. Oilarra. 5. Ura. Adio. S. 6. Miraria. Aa. 7. Eolo. Arau. 8. Z. O. A. Auzia. 9. Kateme. Die. 10. Omenaldiak.
1. Egunsentia. 2. Malaisia. R. 3. Apurra. Hon. 4. Ki. Oilarra. 5. Ura. Adio. S. 6. Miraria. Aa. 7. Eolo. Arau. 8. Z. O. A. Auzia. 9. Kateme. Die. 10. Omenaldiak.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio zentrua den XVI. mendeko jau-regiaren sarrerako ateko irudia da ezkerrekoa eta lorategian da- goen Lurdesko amarena eskumakoa. Zein da jauregi horren izena?


galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezuen!

1. Bergarako zein ermita konpontzeko asmoa du aurki Udalak?
A- San Bixente
B- San Blas
C- Santa Ana
2. Zapatuan bertako pilotari batek egingo du debuta profesionaletan. Nor da?
A- Haritz Berraondo
B- Iker Muruamendaraz
C- Ander Muguruza
3. Nor da aurtengo amodiozko gutunen lehiaketako lehen saria eraman duena?
A- Maialen Aizpiolea
B- Jon Sanchez
C- Maialen Lujanbio



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Edén González**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Edeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Igerilekuak eta kanposantua** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak: Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Skip
garbigarria 2,025 kgr.,
15 ontzitxo
669 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Pedagogixan lizentziatua da eta magisteritza ikasten dabil. Jarduneko gaztetxuekin lanean dihardu azken urtietan eta, horretaz gain, Jarduneko kultura dinamizatzailerik be ibili da. 22 urte ditu.

Umiekin lan egitea gustatzen jatzu?

Bai, jeneralian, jentiaikin harremanetan egotia gustatzen jat. Ordenadore aurrian ez neuke lan egingo.

Beti nahi izan dozu Pedagogia ikasi?

Ez, lehenengo kazetarixa izan nahi neban, gero enfermeria...

Erakustia gustatzen jatzu?

Bai, nik dakitxetenak bestientzat balio dabela jakitziak betetzen nau.

Idatzi izan dozu amodiozko kartarik?

Sekula ez. Amodio kontuetan esan biharrekuak aurrez-aurre esatia nahixago dot, baina lagunei-eta karta asko idatzi izan dotset. Holandan urtebete emon neban eta ixa egunero idazten neban.

Zaletasun nagusixak?

Musikia entzutia, kantatzia, antzerkixa...

Zelako musikia?

Kantautoriak: Javier Alvarez, Silvio, Eric Clapton...

Irakurri?

Gustatzen jat. Azkenak, Lucia Etxebarriarenak irakurri dittut, gustora...

Astebukaeretan zer egitten dozu?

Zapatu eta domeketan gaztetxuekin lan egin, baiña, azkenaldixan, gautxori nabil.

Zinera juaten zara?

Bai, gustatzen jat. Ikusi doten azken pelikulia "Ana y el rey". Ez jaten gustau.

Aktore faboritorik?

Ez naiz idolo zalia, baiña Robert De Niro eta Dustin Hoffman gustatzen jataz.

Eider Aranzabal

Kuartuan posterririk bai?

Bai, batzuk badauzkat, baina futbolista, aktore edo muskarixenak-eta sekula ez.

Reala maillaz jaitziko balitz?

Penia hartuko neuke, jentia depresiñotan jausiko litzakielako, baina futbolak ez dost bape inporta.

Telebista zalia zara?

Oso gutxi ikusten dot: Bertatik bertara, Sorgiñen laratza, pelikulak...

Klaudio Landa ala Euzkitze?

Klaudiok grazia dauka, baiña nazka-nazka eginda bukatu geinke. Euzkitze gustatzen jat, ondo eitten dabelako berba, baiña ez nau konbentzitzen.

Zelako saiua egingo ziñuke zeuk?

Kulturako programia, elkarriketekin...

Negartixa zara?

Bai, oso sentibera naiz eta errez egiten dot negar.

Zerekin poztuko ziñake?

Gazte lokala lortuko bagiñu eta presuak Euskal Herrira ekarriko balittue.

Zerk jartzen zaittu haserre bizixan?

Hipokresiak, kontakatilluak eta beti gaizkiesaka dabiztenak.

Loterixan 200 milloi tokatuz gero?

Munduan zihar bidaiatuko neuke. Kultura berrixak ezagutzia gustatzen jat.



SUBIJAI

Gazteentzako moda

%70 eraino neguko erropetan
%50 udako erropetan

**Helbide aldaketa, berrikuntza lanengatik:
orain Telesforo Aranzadi 2an gaude,
lehen Baster zegoen tokian.**

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41





Kintoen despedida, 1949

Soldadutzara joan aurretik ateratako irudia da aste honetakoa. Erretratu 1948 edo 1949koa da eta bertan agertzen direnek 18 urte inguru izango zituzten orduan. Ohikoa zenez, soldadutzara joan aurretik lagunarteko bazkaria edo afaria egiten zen. Gaur egungo egoera bestelakoa da eta gazte gehienek, gure inguruan behintzat, uko egiten diote soldadutza egiteari. Baina orduan salbuespenak salbuespen, gazte guztiek joan beharra zuten, kasu batzuetan herritik oso urrun gainera. Eta denbora luzez izaten ziren Bergaratik kanpo. Soldadutzara joan baino lehen pentsatzen dugu juerga handia egingo zutela lagunartean. Argazkikoek

bazkaria egin zuten martxo aldera Zubietako Arando tabernan, soinujole eta guzti. Giroa ederra izango zen eta, ziur, oraindik bizi direnek gogoan izango dutela egun hura. Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Juan Irigoien, Vicente Jauregi, Julian Etxeberria, Pablo Uribealzo (soinujolea), Joaquin Esnaola, Nicolas Arzelus, Tomas Iturbe, Iñaki Zelaia, Roman Jauregi eta Pedro Plazaola.

Makurtuta: Antonio Juaristi, Martin Larrañaga, Ignacio Igartua, Angel Mujika, Carlos Urkizu, Fernando Etxeberria eta Antonio Perez.

Argazkia: Nicolas Arzelus.

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



umelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multifertas Orain familia osoarentzat.

Multiofertas
MULTIOPTICAS



Bonardi bilduma
Denontzat **3.800** pta.n
22,84 €
Erref: B0003



Betaurrekoak
60 urtetik gorakoentzat **8.900** pta.tik aurrera
53,49 €
Erref: B0006
*Armañoia +Kristalak**



Giulio Tabacchi betaurrekoak
Gazteentzat **13.900** pta.tik aurrera
83,54 €
Erref: GTV150
*Armañoia +Kristalak**

EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO

Lente Progresiboak
Gurasoentzat **19.500** pta.tik aurrera
117,20 €

*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)

Eskaintza honek 2000-02-29-ra arte balio du.

R.P.S. N. 16499

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA



Zure gorputzak merezi duelako



Berreskura itzazu
edertasuna
eta harmonia
tratamendu
personalizatuekin

Dei egizu konpromiso barik eta behar beste informazio emango dizugu: **943 76 31 71**

LILURA
Edertze Institutua
Bidekurutzeta 7. BERGARA





GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

